

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 1/88 Legeari jarraiki, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena 2008ko ekitaldiari dagokio eta BGPren kontuak ez ezik, Bilboko Metroa, SA (BM) Sozietate Publikoarenak ere besarkatzen ditu; baita kontsolidatutako finantza egoerak ere. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du BGPk eta BMk zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita, batik bat kontratazio alorrekin lotuak daudenak.

Honela, bada, BGPren kasuan publizitate eta lehia printzipioak urratu dira kontratu nagusiaren esleipen hartzaileari zuzenean 9 tren unitate 12 milioi euroren zenbatekoan esleitzearekin.

BMren kasuan ez dira publizitate eta lehia printzipioak gorde hainbat kontraturen esleipenean; eta berebat, ez da DOCEn argitara eman egin asmo ziren kontratuen berri emango duen iragarkia, ez eta kontratzailearen profilean argitaratu ere kontratazio prozedurak arautzen dituzten nahitaez bete beharreko jarraibideak; kasu bietan indarreko arautegia urratzen da.

BGPren eta BMren Urteko Kontuei eta Kontsolidatutako Finantza Egoerei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du kasu guztietarako; salbuespen bakarra egin du, BMri dagokiona eta Txostenean jaso dena.

Txostenak 2008ko abenduaren 31ko Inbertsio Planari dagokion atala barne hartzen du; bertan, 2. Linea, 3. Linea eta atxikitako beste zenbait jardueratarako 977 milioi euroko

guztizko kostua islatzen da; ordea, Eusko Jaurlaritzaren eta BFAREN geroko akordio bidez, BGPren adostasunarekin, 3. Linea 160 milioi euroan Euskal Trenbide Sareak eraikiko duela adierazten da.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEK adierazi du Bilboko Hiri Trenbideko lanen finantzaketaren ondorioz sortutako zorpetzeak sarrera arrunten gainean % 33ko finantza-zama egiten duela, baina azpimarratzen du EAE eta BFA direla abal-emaile nagusienak eta zorpetze osoaren finantza arduradun nagusiak.

Azkenik, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.